

Partaidetzarako Berrikuntza
Innovación en Participación

I-LABaren BALIO-PROPOSAMENA




Herritarren parte-hartzean berritzeko sareko lanaren lehen hurbilketa

DIAGNOSTIKO PARTEKATUA

Administrazio guztiok ari gara parte hartzeko prozesuak abiarazten. Hala ere, zenbait kasutan, erabiltzen diren kanal eta mekanismo tradizionalak ez dute beti interesa eragiten, edo beti talde eta pertsona berengan eragiten dute. Helburua da ahalik eta jende gehienarengana heltzea eta balio publiko handiagoa sortzea parte hartzeko prozesuetan, bai eta herritarrak aktibatzea ere kudeatzaile publikoen erabakietan laguntzeko.

Herritarren parte-hartzeari dagokionez, administrazioek sustatutako parte-hartze prozesuetan nekea eta eszeptizismoa agertzen hasi dira (prozesu parte-hartzaileen ugaritasuna, helburu ez oso argiak, eragiteko gaitasun mugatua, eredueta bikoizketak...), eta horrek beharrezko egiten du gehien erabiltzen diren kanalak, metodoak eta tresnak birpentsatzea.

Bestalde, parte hartzeko zenbait modu daude, Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zurian identifikatu bezala: *parte-hartze politikoa, politikak eta programak diseinatu eta ebaluatzeko* (herritarrak efikazia politikoan esku hartzen duten agenteak dira); *zerbitzu publikoak diseinatu eta ebaluatzeko parte-hartzea* (herritarrak zerbitzu publikoen erabiltzaileak dira); *lankidetzan oinarritutako parte-hartzea* (herritarrak balio publikoaren sortzaileak dira; lankidetzan jardun, batzeko). Helburua da hiru eremu publiko-privatu horietan berritzaileak diren elkarlaneko jardunbideak sustatzea (parte-hartze politikoa, zerbitzu publikoak hobetzeko parte-hartzea, lankidetzako parte-hartzea) eta, horretarako, hainbat sentsibilitate eta ikuspegi sartzeko ahalegina egitea.



DIAGNOSTIKO PARTEKATUA

IBILBIDE KONSOLIDATUA

Euskadin jada gobernu irekiaren ildoan ari gara lanean, baina lurralde irekiagoa izatea dugu helburu.

Gure erakundeek gobernu irekiaren planak gauzatu dituzte, eta, horri esker, batez ere herritarren parte-hartzearen arloan, **aurrera egin da herritarren parte-hartzean eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzan**, parte-hartzeari buruzko arauen eta parte-hartze prozesuetarako deialdi ugariaren bidez; ildo horretatik, ekimen eta politika publikoei buruzko eztabaida eta proposamenak sortu dira.

Hala ere, **kalitate demokratikoan aurrera egiteko**, arlo publikoa kudeatzen duten pertsoneri eta herritarrei **ikaskuntza eta berrikuntza** eskatzen zaizkie; izan ere, beharizan eta arazo sozialak gero eta konplexuagoak dira, eta lankidetzako konponbide itundu eta konprometituak behar dira. Gure erakundeek hainbat erronka dituzte esku artean: gugandik hain hurbil ez daudela sentitzen duten eta normalean parte hartzen ez duten pertsoneri parte harraraztea; parte-hartze formala eta informala konbinatuko dituen eta elkarren osagarri izango diren eredu misto batean aurrera egitea; balio publikoa sortzeko kanal eta tresna efektiboak garatzea; lankidetzarako, baterako sorkuntzarako, negoziatorako eta akordiorako trebetasunak nagusi izango diren eta inhibizioa eta norgehiagoka baztertuko diren inguruneak formalizatzea...

ERAKUNDE ARTEKO KONPROMISOA

Herritarren parte-hartzeari buruzko berrikuntza publikoko laborategia sortzea (herritarren parte-hartzearen Euskadiko *ilab*-a).

Helburua da herritarren parte-hartzearen Euskadiko *ilab*-a sortzea, honako hauetan oinarrituta:

- 1 Lankidetzak publiko-pribatua: balio publikoa elkarlanean sortzeko eta **herritarren parte-hartzearen gainean ikasteko espazioa** izatea
- 2 **Berrikuntzak esperimentatzea herritarren parte-hartzean**, eskala txikiko proiektu pilotuak sustatuz eta testatuz
- 3 Enpatizatze, definitze, asmatze, ereduak ezartzeko eta testatzeko aukera ematen duten **metodologia berritzaileak eta sortzaileak** erabiltzea
- 4 **Arriskua kudeatzea**, administrazioek porrota esperimentatu eta hobeto toleratu dezaten, herritarren artean duen eragina gutxitzearen ondorioz
- 5 **Berrikuntza publikoarekiko konpromisoa**, gobernu ona helburu: integritatea, gardentasuna, kontu-ematea eta lankidetzak eraikitzailea
- 6 **Erakunde arteko erreferente** gisa jardutea, jardunbide egokiak zabaltzeko


HELBURU OROKORRAK ETA OPERATIBOAK, ETA ITXARONDAKO EMAITZAK

Euskadin euskal administrazio guztientzat eta egitura zibikoarentzat erreferentziazkoa den herritarren parte-hartzean berrikuntza publikoa bultzatzeko foro egonkorra eratzea, jardunbide egokiak zabaltzeko.

Euskadiko parte-hartzearen *ilab*-ak honetarako balio izango du:

- **Ikusminak trukatu eta lankidetzan jardungo dute** eragile instituzional eta zibikoek, herritarrek parte hartzeko printzipio, eredu, kanal, metodologia eta jardunbideen inguruan
- Herritarrek parte hartzeko eta lankidetzan publiko-pribaturako **kanal, metodo eta eredu berriak testatuko dira** esperientziazko kontrastatuaren bidez, erronkak dauden esparruetan, balioa sortu ahal izateko eta balio hori jardunbide egoki gisa orokortzeko
- **Parte-hartzerako tresna-kutxak prestatuko dira**, erabilera partekatua dutenak eta testatutako kasuei aplikatu ahal zaizkienak
- **Ahaleginak bateratu eta koordinatuko dira parte-hartzearen gaineko berrikuntza publikoan**, proposamen publiko edo pribatuak bideratzeko
- **Minimizatu egingo da** erakunde-esparruan gobernamentu-eredu berriak esperimintatzeari zaion beldurra
- Gobernu onerako lankidetzan publiko eta pribatuaren birtualtasunak **ereduz adieraziko dira**

ADOSTUTAKO ZEREGINAK ETA MUGARRIAK



I-Labaren balio-proposamena

HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN ILAB-A – PARTE-HARTZEAN BERRITZEKO SAREA

Herritarren parte-hartzearen ilab-a OGP Euskadi 2020 planaren barruan sortu da. Plan horren helburua da, hain zuzen ere, herritarren parte-hartzean berritu nahi duten eragile publiko, pribatu eta komunitarioen sarea osatzea.

Horretarako, sare horrek bete beharko lituzkeen funtsezko hiru funtzio edo zeregin definitu dira:

Esperimentazioa	Transferentzia	Prospektiba
<ul style="list-style-type: none"> • Herritarren parte-hartzeeko prozesu edo proiektu berritzaileak testatzea (kontuan hartuta berrikuntza edukietan eta egiteko moduetan aplikatu daitezkeela, proiektuaren edozein fasean). 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadin herritarrek parte hartzearen prozesuetan berrikuntzari dagokionez sortzen diren ezagutzak komunikatzea eta partekatzea. Ezagutza horiek erraz ulertu eta eskuratzeko moduan jartzea, inplementatutako prozesuen antzeko beste batzuk abiarazi nahi dituzten eragileentzat. 	<ul style="list-style-type: none"> • Tokian-tokian nahiz nazioartean parte-hartzearen berritu ahal izateko ezagutza eta gaitasun berriak garatzeko aukera emango diguten praktika eta joera berriak sortzea eta identifikatzea.

Ilab sarea osatzeko dago oraindik. Hori dela eta, OGPren barruko pilotaje-fase honetan, sarearen ernamuina izan daitezke koordinazio-taldea (Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Innobasque) eta konpromiso-taldea (hainbat erakunde publiko, pribatu eta komunitario osatua), proiektu pilotuekin lanean jarduteko. Lan horrek bat etorri beharko du ilab-aren kontzeptuarekin berarekin, eta, horrenbestez, baliabideak eta lan-jarduna mugatuta egongo dira testatze-fasean.

PROIEKTU PILOTUEN ZERGATIA

OGPri aurkeztutako ekintza-planaren helburua da, aurretik esan den moduan, gai edo jardunbide berritzaileak ekarriko dituzten eta prozesuaren emaitzak ikaskuntzara bideratuko dituzten **4 proiektu pilotu** testatzea (2020ko ekainera bitartean).

Horretarako, proiektuak identifikatzeko prozesu ireki bat gauzatu da (OGP irizpideak), eta, horrekin batera, OGP planaren barruan dauden erakundeei deitu zaie **bultzada eta babes instituzional nahikoa duten proiektu pilotuen** proposamenak jasotzeko, haiek gauzatzeko dauden epe laburrak kontuan hartuta.

Proiektu pilotuok funtzio bikoitza bete behar dute:

EZARPENA → proiektuek berritzaileak izan behar dute (esperimentazioa, transferentzia eta prospektiba oinarri hartuta, eta 3. konpromisoaren foro irekian aztertutako berrikuntza-irizpideak kontuan izanda), 2020ko ekaina baino lehenago transferitzeko moduko emaitzak eman behar dituzte, eta OGPren barruan lankidetzan aritzeko prest egon behar dute.

DISEINUA → pilotuak, konpromisoaren diseinuan definituta dagoen bezala, baliagarri izan behar zaizkigu ilab-aren kontzeptualizazioa bideragarria eta erabilgarria den aztertzeko, eta, hartara, gure ustez balio txikiagoa ematen duten edo beharrezkoak ez diren elementuak identifikatu eta aldatu ahal izango ditugu.

Ilab-eko koordinazio-taldearen iritziz, jasotako proposamen guztien artetik honako proiektu pilotu hauek dira egokienak testatzeko eta kontrastatzeko:

1. **Herritarren parte-hartze prozesuen potentzial salutogenikoa neurtzeko prozesua, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak gidatua**
2. **Parte-hartzeko aurrekontuen inpaktuari buruzko ebaluazio partaidetuaren prozesua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak gidatua**
3. **Thinking Fadura prozesua, Getxo udalerriko kirol-ekipamenduak partaidetza bidez berriz diseinatzea helburu duena, Getxoko Udaleko Kirol Arloak gidatua**
4. **Rekalde – Herritarren Laborategia prozesua, migratzaileen parte-hartzea hobetzea helburu duena, Bilboko Udaleko Herritarren Arreta eta Partaidetza Arloak gidatua.**

Dokumentu honen bidez, beraz, etorkizuneko sarearen esperimentazio-proiektu potentzialetarako egingo den balio-proposamenaren gaineko lehen ikuspegia eman nahi da, eta, horrez gain, aipatutako lau proiektu pilotuetarako jarraibideak ezarri nahi dira.

ZER EKARPEN EGIN DIEZAIROKE ILAB-AK PROIEKTU PILOTUARI?

- **Proiektua kontzeptualizatzeko laguntza** – berrikuntzan eta esperimentazioan oinarritutako proiektu pilotuaren definizioa eta balio-proposamena kontrastatzea, proiektu pilotuak beharrezkotzat jotzen dituen bilera teknikoetara joanez.
- **Transferentzia– transferentziarako elementu interesgarriak identifikatzea** eta transferentziarako bitartekoak (txostena, ikus-entzunezko materiala, tresnak...) materializatzeko laguntza ekonomikoa ematea.
- **Proiektu pilotuen arteko konexiorako eta trukerako espazioa** – kontrastatzeko bi bilera egitea gutxienez, eta lau proiektu pilotuen artean hausnartzeko espazio bat sortzea.

- **Komunikazioa** – esperientziak posizionatzen lagunduko duten proiektuak zabaltzen laguntzea (noiz jarriko diren abian, zein diren mugarriak, zein diren emaitza nagusiak), Euskadiko gobernu irekiaren erakunde arteko plan baten parte gisa. Gutxienez foro ireki bat sortzea proiektu pilotuen eta haien emaitzen berri emateko.
- **Hedapen-fasean proiektuak kontrastatzea eta aberastea** – hala konpromiso-taldeak (gutxienez lan-saio bat, proiektu pilotuak aberasteko eta kontrastatzeko) nola konpromisoa koordinatzeko taldeak.
- **Adituen erreferentziak eta kontaktuak** (esaterako, konpromiso-taldeko kideak eta foro irekietako parte-hartzaileak), edo proiektu piloturako interesgarriak izan daitezkeen erreferentziako praktikak. Proiektu pilotuak interesgarri eta beharrezkotzat jotzen badu, ilab-ak konexio horiek egin litzake (adibidez, proiektu pilotuaren talde eragilea profil berriekin indartzeko, kontrastatze-prozesuak egiteko, eta abar).



ZER EMAN DIEZAIOSKE PROIEKTU PILOTUAK ILAB-ARI?

- **OGP Euskadi konpromisoak betetzen eta jardunbide onen erakunde arteko ikaskuntza kolektiboan laguntzea**, lan-formula bateratuak eta gobernu irekiaren printzipioan oinarrituak probatzeko.
- **Herritarren parte-hartzearen berrikuntzarako ilab-a kontzeptualizatzen laguntzea**, haren helburu eta lan-mekanismoak berrikusteko eta eztabaidatzeko dinamika bati bide emanez.
- **Sareko lanaren balioa eta ilab-aren ahalmena areagotzeko hobekuntzak identifikatzea**, herritarren parte-hartzean berritzeko katalizatzaile gisa.

- Herritarren parte-hartzerako ikuspegi, metodologia edo gobernantza-eredu berriak **testatzeko eta berritzeko espazio bat**.
- **Ikaskuntza praktiko eta errealak, proiektuaren emaitzei** buruzko informazioa.
- **Ilab-aren transferentzia-elementua** definitzen laguntzea, praktikaren bitartez.

